

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

OÑATIKO UDALA

Kale-garbiketako bi peoi plaza jabetzan betetzeko eskaintza hiru plazara handitzea (2023AOPE0004).

2022ko abenduaren 30eko dataz Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN (247. zk.) 2022ko Lan Eskaintza Publikoa argitaratu zen. Bertan, besteak beste, kale garbiketako bi peoi plaza lehiaketa-oposizio sistemaren bitartez, txanda librean, jabetzan betetzeko eskaintza egin zen (Esp. zk.: 2023AOPE0004).

Izen-emate epea amaituta eta behin-behineko onartu eta baztertuen zerrendak argitaratu aurretik, 2023ko Lan Eskaintza Publikoan (Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN 2024/01/04, 3. zk.) eskaini zen beste kale garbiketa peoi plaza bat deialdi honetara atxikitzeko aukera dago eta abian dagoen hautaketa-prozesuarekin bete.

Alkatetzaren 2024ko otsailaren 28ko 327 zenbakia duen Dekretuaren bitartez honako erabaki hau hartu da:

Lehenengoa. Kale garbiketako peoi izateko 2 plazen deialdia handitzea, 2023ko Lan Eskaintza Publikoan sartutako beste kale garbiketako peoi plaza batekin. Guztira, 3 kale garbiketako peoi plaza lehiaketa-oposizio bitartez eta txanda libreko modalitatearen arabera betetzekoak dira, eta I. hizkuntza eskakizuna dute, derrigortasun data igarota.

Bigarrena. Akordio hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN, Udalaren iragarki-oholetan eta Udalaren webgunean argitaratzea.

Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesatuak Administrazioarekiko Auzi Errekurtsoa aurkez dezakete zuzenean Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegian, argitaratu eta hurrengo egunetik hasi eta bi hilabete baino lehen.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik Berraztertze Hautazko Errekurtsoa aurkezteko Alkateari, argitaratu eta hurrengo egunetik hasi eta hilabete baino lehen. Hori eginez gero, ez dago administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztearik harik eta berraztertzearen berriazko ebazpena eman edo ustezko ezespina izan arte. Dena dela, egoki irizitako beste edozein errekurtsu aurkez daiteke.

Oñati, 2024ko otsailaren 28a.—Izaro Elorza Arregui, alkatea.
(1530)

AYUNTAMIENTO DE OÑATI

Ampliar la oferta para cubrir en propiedad dos plazas de peón de limpieza viaria a tres plazas (2023AOPE0004).

Con fecha 30 de diciembre de 2022 se publicó en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 247 la Oferta Pública de Empleo 2022. En el mismo se ofertó, entre otros, la provisión en propiedad, por el sistema de concurso-oposición, por turno libre, de dos plazas de peón de limpieza viaria (Expte. n.º 2023AOPE0004).

Una vez finalizado el plazo de inscripción y antes de la publicación de las listas provisionales de admitidos y excluidos, otra plaza de peón de limpieza viaria ofertada en la Oferta Pública de Empleo 2023 (BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa 04/01/2024, n.º 3), podrá adherirse a esta convocatoria y cubrirse con el proceso selectivo en curso.

Por Decreto de Alcaldía n.º 327, de 28 de febrero de 2024, se acuerda:

Primero. Ampliar la convocatoria de 2 plazas de peón de limpieza viaria con otra plaza de peón de limpieza viaria incluida en la Oferta Pública de Empleo 2023. En total, 3 plazas de peón de limpieza viaria, a cubrir mediante concurso-oposición y por la modalidad de turno libre, tienen asignado el perfil lingüístico I con fecha de preceptividad vencida.

Segundo. Publicar el presente Acuerdo en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, en el tablón de anuncios del Ayuntamiento y en la página web del Ayuntamiento.

Este acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa. Los interesados podrán interponer directamente recurso contencioso-administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de Donostia-San Sebastián en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

No obstante, los particulares podrán interponer previamente Recurso Potestativo de Reposición ante la Alcaldesa en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En tal caso, no cabrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que se haya dictado resolución expresa de reposición o desestimación presunta. No obstante, podrá interponerse cualquier otro recurso que estime oportuno.

Oñati, a 28 de febrero de 2024.—La alcaldesa, Izaro Elorza Arregui.
(1530)